

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

UDAL LOKALEN ERABILERARI BURUZKO UDAL ARAUDIA

ZIOEN AZALPENA

Olaberriako Udalak bere jabetzako lokalen erabilera lagatzen die bai irabazi-asmorik gabeko elkarteei, bai eta pertsona fisiko eta juridikoei ere, interes sozialeko jarduerak egiteko nahiz haien eginkizunak garatzera eta dituzten helburuak gauzatzera zuzendutako ekintzak aurrera eramateko.

Arau honen helburua da, hortaz, Olaberriako udalerriko pertsona fisiko nahiz juridikoei aurreko paragrafoan aipatutako xedea gauzatu ahal izateko esparru bat uztea eta horren erabilera arautzea.

Nolanahi ere, lokal horiek erabiltzeko araudirik ez izateak antolamendu-arazoren bat ekar dezake. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da udal-lokalen erabilerari buruzko araudi bat sortu eta onartzea.


Asmo horrekin onartu da araudi hau, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikuluan toki-erakundeei aintzatesten zaien arautzeko eta bere kabuz antolatzeko ahalmena aplikatuta.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Araudi honen xedea da udalerriko bizitzarekin lotutako jarduera zehatzetarako lokal bat behar duten Olaberriako udalerriko pertsona fisiko eta juridikoei udal-lokalak erabiltzeko arauak ezartzea.

2. artikulua. Lagatzen diren esparruen inguruko oharrak



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

1. Olaberriako Udalak udal-lokalak behin-behineko eta dohainik lagatzea erabakiko du.

Udalak eskuragarri dauden lokalen zerrenda eta haien esleipena aldatu ahal izango du, udalerraren baliabideengatik eta interesengatik beharrezkoa denean.

3. artikulua. Eskabideak eta onuradunak

1. Pertsona fisikoek edo juridikoek, Olaberriako Udalari dagokion udal-lokalaren erabilera laga diezaien eskatzeko, eskabide-eredu formalizatua aurkeztu beharko dute. Eredu hori jendearentzako arretarako udal-bulegoan egongo da eskuragarri.

2. Udal-lokalen erabilera laga ahal izateko, ezinbestekoa izango da oinarritutako eskaera egitea, pertsona fisiko edo juridikoaren jarduera, erabileraren arrazoi dena, adierazita.

3. Erabilera eskuratzeko ezinbesteko eskakizuntzat hartzen da lokalak erabiltzeko egunak eta orduak adieraztea, bai eta Udalak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak aurkeztea ere. Horiek, betiere, eskabideari erantsiko zaizkio.

4. Eskabidea aurreikusitako gauzatze-data baino gutxienez 5 egun lehenago aurkeztu beharko da.

5. Irabazi-asmoa duten erakundeei ezin izango zaie lokalik laga, guztiz justifikatutako salbuespenak salbuespen.

II. TITULUA. PROZEDURA

4. artikulua. Organo ebazlea

1. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean, eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 1986ko Araudian ezarritako eskumenen kaltetan izan gabe, lokalak erabiltzeko baimenak



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

ematearekin eta horren inguruko gainerako gaiekin lotutako jardunak alkatetzak edo horrek eskuordetzen duen zinegotziak kudeatu eta ebatziko ditu.

5. artikulua. Prozedura

1. Eskabidea garaiz eta eraz aurkeztu ondoren, hura bi laneguneko epean berariaz ebatziko da.

2. Udal-lokalen erabilera baimentzeko erabakian, baimenaren iraupena ezarriko da; lagatako esparruak eta erabilera-ordutegia berariaz eta zehazki adierazita.

3. Nolanahi ere, Alkatetzak, hasiera batetik edo ondoren, bidezkotzat jotzen duen erabilera-araubidea ezarri ahal izango du, ordutegiei eta erabileren bateragarritasunari buruzko araubidea barne dela.

III. TITULUA. ERABILERA ARAU OROKORRAK

6. artikulua. Erabilerak

1. Lagatako esparruak dagozkien eginkizun edo jardueretarako besterik ezin izango dituzte erabili onuradunek, erabiltzeko baimen-eskabidearen oinarri diren helburuak kontuan izanda. Erabilera laga edo baimentzeko erabakian zabalago arautu ahal izango da gai hori bidezkotzat jotzen diren puntuetan.

2. Aurreko paragrafoan aipatutakoaz bestelako edozein erabilera Olaberriako Udalak baimendu beharko du.

7. artikulua. Mantentzea

1. Udal-lokalen erabiltzaileak behartuta daude eraikina, oro har, eta altzariak arduraz erabili eta zaintzera, eta, egitez edo ez-egitez, bertako kide eta erabiltzaileei sorraraz diezazkieketen kalteez erantzutera. Beharrezko konponketak berehala eta beren kontura egingo dituzte, Udalak aldeaz aurretik baimenduta.

8. artikulua. Baimendu gabeko jarduerak



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

1. Lagatako lokalaren barnean, esleipendunaren autonomia ukatu gabe, ezin izango da pertsonen berdintasun-printzipioen aurkako jarduerarik egin. Horregatik, debekatuta daude indarkeriazko ekintzak, edo pertsonen duintasunaren kontrakoak, edo arraza, sexua, erlijioa, pentsaera, sexu-joera eta gainerako inguruabar pertsonal edo sozialak direla-eta gizabanako edo taldeei bereizkeria egitea.

2. Debekatuta dago lagatako lokalak erabiltzea erabilera-baimenean jasotzen ez den edozein jarduera egiteko, bereziki, jarduera gogaikarriak, osasungaitzak, kaltegarriak edo arriskutsuak.

9. artikulua. Onuradunen betebeharrak

1. Onuradun guztiak behartuta daude III. tituluan bildutako arau orokorrak betetzera.

2. Era berean, betebehar hauek dituzte:

- a) Lokalak erabiltzeko baimenari edo araubideari buruzko erabakietan ezarritako erabilera-ordutegiak errespetatzea.
- b) Lagatako esparrua erabiltzea onuradun gisa dagozkien xedeetarako, duten jarduera-programaren arabera, eta Udalak hartutako erabakietan horretarako ezarritako xedeetarako ere.
- c) Erabiltzeko esleitu zaizkien esparruak osasungarritasun- eta higiene-egoera egokian gordetzea.
- d) Lokaleko giltzak zaintzea eta, hura erabiltzen duen azken erakundea denean, lokala ixtea, erabakian bestelakorik ezartzen bada salbu. Era berean, lagatako esparruak egoki erabiltzeaz arduratuko dira, eta erabiltzaileak behatu eta kontrolatuko dituzte.
- e) Esleitu zaien esparrua hirugarren batzuei ez lagatzea, ez osorik, ez zati batean.
- f) Erabakian berariaz baimendutakoa ez den beste udal-lokal bat ez erabiltzea.
- g) Olaberriako Udalari sor daitekeen edozein anomalia, gorabehera edo arazo jakinaraztea, eta berehala gainera, larrialdirik bada.
- h) Udalari betiere uztea dituen ahalmenak baliatzen, araudi hau eta erabilera laga edo baimentzeko erabakia betetzen direla zaindu eta ikuskatzeko. Horretarako, esparru guztietan sartzen utziko diote, eta eskatutako informazio eta dokumentu guztiak emango dizkiote.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

IV. TITULUA. ZIGOR ARAUBIDEA

10. artikulua. Arau-haustek

Arau-haustetzat hartuko dira udal-lokalak erabiltzeko onuradunek egiten dituzten jardun guztiak araudi honetan ezarritakoaren aurka, sailkapen honen arabera:

- a) Arau-hauste arina: Araudian larrizat edo oso larrizat hartzen ez den oro.
- b) Arau-hauste larria:
 - Lokalean edo aldameneko dependentzietan kalteak edo hondamena sortzea.

 - Irabazi-asmoarekin jardunak egiteko debekuari buruz ezarritakoa ez betetzea, Araudian deskribatutakoaren arabera.
 - Erabakian berariaz baimendutakoa ez den beste lokal bat erabiltzea.
 - Arau-hauste arina gutxienez hirutan egitea.
- c) Arau-hauste oso larria:
 - Arau-haustearen bidez, pertsonen askatasunaren nahiz haien segurtasun fisiko edo moralaren aurka eraso egiten denean.
 - Arau-hauste larria gutxienez bitan egitea.

11. artikulua. Zigorrak

Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-haustek egiten dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei, bidezko espedientea bideratu ondoren, ondoko zigor hauek ezarriko zaizkie:

- a) Arau-hauste arina:

Bostehun euro (500,00 €) arteko isuna eta gehienez hiru hilabetez lokala ezin erabiltzea.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

b) Arau-hauste larria:

Bostehun euro eta zentimo bat (500,01 €) eta mila eta bostehun euro (1.500,00 €) arteko isuna, eta hiru hilabete eta egun batetik sei hilabetera arte lokala ezin erabiltzea.

c) Arau-hauste oso larria:

Mila eta bostehun euro eta zentimo bat (1.500,01 €) eta hiru mila euro (3.000,00 €) arteko isuna, eta sei hilabete eta egun batetik urtebetera arte lokala ezin erabiltzea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honen aplikazioari edota bertan jasotako alderdi puntualei edo arautu gabeei buruz sor litezkeen zalantzak Udalbatzak ebatziko ditu, bidezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eta juridikoak alde zuzenetik aztertuta. Haren erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta beraien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legean jasotakoari jarraituz. Horrez gain, interesdunek, aukeran, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan jasotzen denez.

AMAIERAKO LEHEN XEDAPENA

Alkateari ahalmena ematen zaio araudi hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren arau guztiak ezartzeko.

AMAIERAKO BIGARREN XEDAPENA

Araudi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hamabost egunetan jarriko da indarrean.